

## BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

### 4154

*EBAZPENA, 2023ko abuztuaren 29koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoan luzapena emateko 2023ko eskaera bakarra egokitzeko epeari, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan.*

Abenduaren 27ko 1048/2022 Errege Dekretuak, 2023tik aurrera zuzeneko ordainketen bidezko esku-hartzeak aplikatzeari eta Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan betekizun komunak ezartzeari buruzkoak, eta kudeaketa- eta kontrol-sistema integratuaren eskaera bakarra arautzeari buruzkoak, 112. artikuluan ezartzen du nekazariak, eskaera aurkezteko eta aldatzeko epea amaitu ondoren, eskaera bakarra egokitzeko aukera izango dutela, aurretiazko kontroletan, administrazio-kontroletan edo monitorizazio bidezko kontroletan hautemandako ez-betetzeak zuzendu aldera, hartara, administrazio-murrizketak eta -zehapenak saihesteko.

1048/2002 Errege Dekretuak eskaera bakarraren egokitzapen horiek egiteko ezartzen duen epea 2023ko irailaren 8an amaituko da.

Aurrekoa gorabehera, Errege Dekretuak ezartzen du autonomia-erkidegoek aukera dutela beren jarduera-eremuan eskaera bakarra egokitzeko epea luzatzeko, betiere Nekazaritza Bermatzeko Espainiako Funtsari jakinarazpen arrazoitua egin ondoren eta Europar Batasuneko erregelamen-  
duek baimentzen duten gehieneko epearen barruan. Kasu horretan, epemuga saldoaren lehen ordainketaren edo aurrerakinaren eguna baino hamar egun lehenagokoa izan behar du, gutxienez.

Autonomia-erkidegoak eskaera bakarra egokitzeko epea luzatzea erabakitzen badu, ulertu behar da ere monitorizazio bidezko kontroletan detektatutako gorabehera horiek erantzuteko ebidentzia gehigarriak aurkezteko epea luzatu egiten dela gorabehera horiek detektatu diren esku-hartzeetarako ere, aipatutako Errege Dekretuaren 111. artikulua ezartzen duenaren arabera.

Eskuduntza duen agintaritzak onuradunei hautemandako gorabeherak jakinarazi beharko dizkie, ebazpen honen arabera ezarritako eskaera bakarraren egokitzapen-epea amaitu baino hamar egun baliodun lehenago, beranduenez, nekazariak gutxieneko tarte bat izan dezaten, behar bezala erantzuteko.

Ildo beretik, 1048/2022 Errege Dekretuaren 113. artikulua aukera ematen die autonomia-erkidegoei laguntza-eskaerak osorik edo partzialki erretiratzeko epea luzatzeko, hasiera batean irailaren 8rako ezarrita badago ere.

2023ko kanpaina honetan, PAC berria aplikatzen den lehen urtea denez, hainbat inguruabar berezi gertatu dira, eta, horien ondorioz, eskaera bakarra aurkezteko eta aldatzeko epea luzatzea gomendagarria suertatu da, eta horrek kontrolen hasiera eta espedienteen kudeaketa atzeratu du. Baina, are gehiago, errealitate horren gainean egoeraren arabera arazo batzuk gertatu dira, ezinbesteko egin dutenak Euskal Autonomia Erkidegoan eskaera bakarra egokitzeko epea atzeratzea, nekazariak tarte nahikoa emateko laguntza-eskaerak egokitu ditzaten edo froga gehigarriak aurkez ditzaten Administrazioak hautemandako gorabeherak jakinarazi ondoren, edo laguntza-eskaerak guztiz edo partzialki kentzeko.

Horregatik guztiagatik, honakoa

2023ko irailaren 7a, osteguna

## EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2023. urterako, irailaren 22 ko epemuga ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoan, nekazariei jakinarazitako aurretiazko kontroletan, administrazio-kontroletan eta monitorizazio bidezko kontroletan hautemandako gorabeheri buruzko eskaera bakarrak egokitzeko azken eguna.

Bigarrena.– 2023rako, Euskal Autonomia Erkidegoan, irailaren 22ko epemuga ezartzea monitorizazio bidezko kontroletan detektatutako gorabeheri erantzuteko ebidentzia gehigarriak aurkezteko.

Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoan, 2023. urterako, irailaren 22ko epemuga ezartzea laguntza-eskabide guztiak edo batzuk erretiratzeko.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta ondorioz, beronen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez daiteke Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45., 121. eta 122. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abuztuaren 29a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,  
JORGE GARBISU BUESA.